



Ingurugiro-heziketa

M. Fernandez, K. Martinez de Lago & J. Alvarez*

Hirurogeigarren hamarkadan gizartearen hasi zen ingurugiro-kezkaeren prozesu luze eta etengabekoa ari erantzuna eman nahi izan dio Hezkuntza Sistemak Ingurugiro-heziketaren bidez.

Ingurugiro-heziketa gure planetak bizi duen krisi ekologikoa gainditzeko tresna garrantzitsu bezala onartua izan da nazioarteko erakundeetan. Azken urteotan ere, oinarriko bi hitz gehitu zaizkio aurreko estrategiari: garapen eramangarria eta gerotzik "eramangarritasunerantzako heziketa" ari da gorpuzten mundu zabalean.

Planetak bizi duen krisiaz mintzatzerakoan gehienetan adierazle ekologikoak ajpatu arren (basamortutzea, euri azidoa, uraren eta airearen poluzioa, bioaniztasunaren galera, balibide naturalen narriadura eta abar), faktore ekonomikoak, kulturalak eta politikoak dira herrialdeen arteko desberdintasunak bultzatu dituztenak eta lurra- ren bizi-gaitasuna borxatu dutenak. Beraz, ez dirudi garapena eta ingurugiroa binomio banaezintzat hartzea laister pasako den moda denik.

Ingurugiro-heziketak pentsamendu kritikoz mundua aztertzen eta gizartearen eskuhartzeko trebetasunak lantzen saiatu nahi du, bizitzarako funtsezkoak diren prozesu ekologikoei eutsi eta guztion bizi-kalitatea hobetu eta bermatu nahi du eta.

Desafio horri aurre egiteko, Ingurugiro-heziketak arazo jakinetara jo behar du, disziplinarekotasuna izan behar du ezaugarritzat, baloreen (solidaritatea, lankidetzeta, justizia, kontsumo apalak edota erantzukizuna) zentzua indartu behar du eta ongizate kolektiboa sustatu behar du. Era berean, Ingurugiro-heziketaren helburua natura eta giza-ingurugiroaren konplexutasuna ulertaraztea da: alor biologiko, fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen elkarrenergina ulertaraztea, ingurugiroarekiko neurri aproposen gauzaketa segurtatzeko eta horren kudeaketa parte hartzea bultzatzeko.

1990ean Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorre- rako Legea (LOGSE) onartu zen. Legeak ekarri duen Hez- kuntza Eraberritzeak bizimoduarekin lotutako ikuspuntuak barneratu ditu, Zehar Lerroen kontzeptua ezarri,

ikasketaren prozesua edo edozein alorri buruzko erabakietan ikuspuntu horiek kontutan har daitezzen beti. Beraz, esko- laren ohiko zereginetan Ingurugiro-heziketa hastapen didaktiko gisa agertzen da, hau da, irakaskuntzaren proze- suan erabakiak hartzerakoan ezinbestekoa den ikuspedia kontutan hartu behar da. Oraindik irizpide garbirik ez dagoen arren, eskola bakoitzeko curriculum irreaki emate- n dituen aukerak ezin ditugu ahaztu.

Ingurugiro-heziketa gauzatzeko ez da edukin berri asko gehitu behar. Ez dira prozedura berriak asmatu behar, baizik eta errealitatearekin kontaktua, ikerketa-metodoa eta parte hartze aktiboa metodo gisa bultzatu beharko dira. Ingurugiroarekiko jarrera arduratsuagoak suspertu behar dira eta horretarako eskola-ingurunea (inguru fisiko, soziala eta kulturala) hobe daitekeen hezkuntza ele- mentu garrantzitsutzat hartu beharko da.

Eskolak sinesgarritasuna eduki nahi badu, koherente izan behar du. Erantzukizun-zentzua garatzeko asmoa badu, berau estimulatzeko eta ikaslegoak bere adineko eran- tzikizunak har ditzan balioko duten zereginak diseinatu beharko dira. Jarrera kritikoa eta lankidetzaren zentzua bultzatu nahi baditu, iritziak elkartrukatu, arazoak ebatzi eta erabakiak hartzera eramango duen talde-lana pro- gramatu behar du. Horretarako eskola bera eta bere inguru- a izugarritzko laborategia da. Ikasleen neurriko esparrua, gauzak eraldatzeko eta hobetzeko eta gainera, giroak ere heziketan parte hartzen du.

Ikaslearen jitea ere elementu erabakiorra da. Onarpen- uleminen- eta begirune-giroa sortu beharko da, kontrastea eta partaidetzeta aktiboa baimenduko duen giroan bakarrik eman daitezkeelako hezkuntza-prozesuaren garapen aber- rasgarria eta bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoa den kontzientzia eta balioen suspertzea.

Prozesu horretan guztian laguntzeko prest gauzakuzue Eusko Jaurritzako CEIDAK (Ingurugiro-heziketarako ikastegiak).

* CEIDAKo lankideak